

## EUSKEGIÑE

Euske, euske,  
giñe, giñe  
berde, berde  
euskaraz eginez.

Niri deitzen didate  
Euskegiñe neska  
belarri ikustezinak  
dauzkat koadernoan.  
Txiki txikia naiz ni  
Euskal Herrikoa  
liburudenda utzi  
ta eskolara noa.

Euske...

Entzuten bazaituztet  
erderaz hizketan  
belarriak estali  
minutu batetan  
eta ni nahi banauzu  
gertutik sentitu  
faborez ta mesedez  
euskaraz mintzatu.

Euske...

Ni ezkututzen naiz  
edozein txokotan  
motxilan, poltsikoan  
edota karnetan.  
Gure eskolan  
nabil gehienetan  
ta gauetan sartzen naiz  
haurren ametsetan

Euske...

Gauza harrigarriak  
egiten badakit  
majia ikasi nuen  
txiki txikitatik.  
Opari asko dauzkat  
zuentzat gorderik,  
jolastorduak ere  
luza ditzaket nik.